

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko urriak 23 · 1160. zenbakia



MESETAREN KONTAKIZUN POETIKOA

2020^{ko} JARDUNALDIAK

Urriak 14 / Azaroak 26

DIGITALIZAZIOA
BIDELAGUN



Zientzia
Teknologia
Berrikuntza
Bergara

ztbergara.eus



ENPMGARE

URRIAK 25, igandea

Untzaga Plazan 10:00 - 14:00



DEBABARRENEKO GAZTA AZOKA EIBAR

EGOTZA

Ahuntz gazta
(SORALUZE)

SOSOLA

Ardi gazta ekologikoa
(EIBAR)

AXELEKU

Behi gazta
(MALLABIA)

GOIENETXE

Ardi gazta
(MUTRIKU)



2021eko gida prestatzen dihardugu

Eibarren
badakagu



publizitatea@etakitto.eus
etakitto.eus/mediateka/gida-komertziala



Eibartarrak baso bizien alde

Hurrengo astelehenean, urriaren 26ko udalbatzarrean, EIBARKO BASO BIZIAK herri-ekimenak mozioa aurkeztuko du. Harrituta eta oso eskertuta gaude jaso dugun babesarekin: honezkeroko 2.300 sinaduratik gora jaso ditugu. Gure proiektuaren mezua ondo ulertu du Eibarko herriak; oinarri zientifiko sendoetatik abiatuz Eibarko inguruak jasaten ari diren dekadentzia erakutsi nahi izan diogu. Zerbait aldatu behar dela argi ikusi du. Bertako eragile eta norbanakoengan piztu dugun ilusiozko etorkizunak gure asmoekin tinko eta eskuak luzatuz elkarlanean ekiteko indarra eman digu. Gure inguruko zuhaitz landaketen eredu desorekatua eta zentzu gabekoa aldatu nahi dugu, beranduegi izan baino lehen. Mozioa hasiera besterik ez da, gure asmoen artean: kontzientziazio-ekimenak, irtenbideak eztabaidatzeko foroak, bertako zuhaitzak landatzeko lursailen erosketa... Hori guztia gauatzeko eskua luzatzen diogu bai Eibarko Udalari, bai baserritar eta lurjabe elkartei (edo norbanakoei) eta baita gure ekimenean parte hartzeko prest dagoenari. Guztion artean eredu sostengarri baterantz jo dezagun benetako Eibarko Baso Biziak izan arte.

Eibarko baso biziak

"Hemen jaio, hemengoak izan eta hemengoak ardura ez dien gazteek baldintzatzen ari dira gure etorkizuna, eta ez onerako. Zer nolako itxura du etorkizun horrek haien ezjakintasunak, indiferentziak edo mespretxuak agintzen badute gure giza harremanetan? Zertarako hainbeste kanpaina, Euskaraldia bukatu eta biharamunean horrelako bat guregana etorri eta haren aurrean guk guztiok erdaraz egiten badiogu elkarri, hark japoniera euskara baino gogokoago duelako? Geure jokaera aldatzeko bide luzea dugu aurretik, inoiz aldatuko badugu: lehenik eta behin, euskaldunon artean euskaraz egin beharko genuke. Gero, euskaldunon artean euskaraz egoten segitu, tartean erdaldun bat egon arren. Eta azkena: erdaldunari euskaraz egin, zuzenean. Hori gehiegizkoa izango litzatekeela... gatazka linguistikoa piztuko lukeela... orain gatazkarik ez balego bezala! Teorian hizkuntza-eskubideak ditugu, baina badira euskal herritarrak eskubide horiek kentzen dizkigutena praktikan".

JOSE MARI PASTOR, zutabegilea

"Oraindik badago gauza salgarririk Himalaian. Gaur egun, 3.000 euroekin gauza politikak egin daitezke, baina azken urteetan egin ditugun espedizioak oso jendetsuak izan dira, egun askoak, neguan. Gauzak egin daitezke oraindik ere. Halere, oso ezberdina da Manaslura udazkenean joatea. Oso urruti gabe, 2.500 euroan joan zaitezke, eta K2ra 5.000 euro odainduta. Everestera edo Antartikara neguan joateko, berriz, 80.000 euro inguru behar dira buruko. Babesleen kontua, bestalde, oso gaizki dago. Neguko azken espedizioek aurrekontu oso handiak izan dituzte, 200.000-250.000 euro ingurukoak. Aurtengoak, aldiz, ez du zerikusirik izango aurrekontu horiekin. Horren erdiarekin egiteko asmoa daukagu. Hala ere, iruditzen zait asko kostatuko zaigula dirua biltzea".

ALEX TXIKON, alpinista

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

NAHIDALA.- Nahita. "Penati garbixa izan dok, nahidala jo dau eskuakin baloia".

NAHIKUA LAN.- Nahiko lan, lan nahikoa. "Nahikua lan egin dot 67 urtian".

NAHIKUA TA LARREGI.- Asko. "Nahikua ta larregi zuk egin dozuna".



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Malen Jainaga eta
Malen Illarramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Juan Andres Argoitia eta
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Itziar Albizu eta Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Juan Palacios
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.730 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



TUTULUMENDI



Idurre Iriando

Egoaziaren azokak arduraz eta modu jasangarrian kontsumitzera animatu zituen herritarrak

>>> 200 erosketa jasangarri baino gehiago egin ziren zapatuan, Egoazia GKEak antolatutako Kontsumo Arduratsuen V. Azokan. Aurtengo goiburuak pandemia sasoiaren jendea kontsumo arduratsua praktikatzera animatzea bilatzen zuen eta azoka egunean, behintzat, hala egin zuten Untzagara gerturatu zirenetako askok. Produktuen eskaintza zabala egon zen: Aza ta Porrua kontsumitzaile elkartearen barazkiak, bidezko merkataritzako produktuak, artisautza naturala, txokolate eta kafeak... Aurten 20 urte bete dituen Egoaziak COVID-19ak Lati-



noamerikan eragin duen pobrezia eta gosea azpimarratu nahi izan zuen.

Gurasoentzat pentsatutako hitzaldiak antolatu dituzte

>>> Udalaren Gizartekintza sailak eta herriko guraso elkar-teen hitzaldi ziklo berria antolatu dute, "Gurasoak Martxan" programaren barruan. Gurasoei zuzendutako jarduera horretan parte hartzeko derrigorrezkoa da izena ematea, bai Gizartekintzan bertan gizartekintza@eibar.eus helbidean, bai seme-alaben ikastetxeko Guraso Elkartearen bidez. Formazioa eskaintzeaz gain, jarduera hauen helburua seme-alabekiko komunikazioaren gainean gogoeta egitea da.

Portaleko areto nagusian izango dira saioak, 18:00etatik 19:30era eta aurten, presentzialak izateaz gain, online ere emango dira, Udalaren YouTube kanal ofizialean, parte hartzea errazteko eta informa-



Gurasoak martxan

zioa zabaltzeko (gehien jeta 31 lagun bertaratu daitezke aretoan). Hitzaldiak Hazkunderen emango ditu, jarraian azaltzen diren egunetan: "Adecuarse a la situación actual como padres y madres" (urriak 28), "Jazarpenaren aurrean nola erantzuten duten justiziari eta familiari" (azaroak 3, euskeraz) eta "Adicciones sin sustancia: redes sociales, juegos..." (azaroak 11).

JUAN LUIS MARDARAS INTXAUSTI

1. urteurrena: 2019-10-23

"Nahiz eta urtebete pasau zu gabe,
gurekin jarraituko dozu beti"

ETXEKUAK





Udal Artxiboak bideoa egin du, Alfaren sorrera gogoan

>>> Alfa lantegia eratu zutela 100 urte betetzear direla eta, Eibarko Udal Artxiboak bideoa argitaratu du bere YouTube kanalean. Bertan enpresaren argazki zaharrak, bideo-zatiak eta publizitate-iragarkien audio grabazio originalak bildu dituzte eta, soinu-bandarako, berriz, Alfaren sirena hotsa aukeratu dute. Udal Artxibotik adierazi dutenez, “publizitateak, 1950etik 1970era bitarteko aldiak, funtsezko zeregina izan zuten kontsumo-gizartearen aldaketan, eta, horretarako, emakumeen unibertsoa hartu

zuen oinarri. Alfaren iragarriak harreman horren erakusgarri argia dira; izan ere, mezu haiekin emakumearen arreta bereganatu nahi zuten, hura baitzen aliatu nagusia etxeko kontsumoan”. Bideoa “alfista” guztien omenez egin da.

Lantegiaren sorreraren mendeurrena ospatzeko Armagintzaren Museoak antolatutako erakusketak domekan itxiko ditu ateak, Portaleko erakusketak aretoan, baina ordura arte oraindik badago ikustera joateko aukera, gaur, bihar eta etzi, 18:30etik 20:30era.

Geoparkean ikerketa-lanak egiteko dirulaguntza deialdia

>>> Ikerketa zientifikoa bultzatzen jarraitzeko asmoz, Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkeak laguntzen deialdi irekia zabaldu du. Urtero eskaintzen dute Euskal Kostaldeko Geoparkearen ondareari buruzko ikerketa-lanak egiteko laguntza eta aurtun, geologiaz gain, ekologia, naturagune babestuek, historiaurrea, kultura-ondare ukiezina eta itsas ondarea izango dira lehenetsiko diren gaiak.

Pertsona fisiko eta juridikoei eskatu ahal izango dute laguntza eta eskatzaile bakoitzak gehienez ere bi ikerketa-proiek-

tu aurkeztu ditzake. Urtebeteko edo bi urteko iraupena duten proiektuak aurkeztu daitezke eta laguntza gehienez 3.500 eurokoa izango da.

Eskaerak azaroaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira, geoparkea.eus web orriaren eskuragarri dagoen inprimakia bete eta, eskatutako dokumentazioarekin batera, flysch@gipuzkoa.eus helbidera bidalita. Posta arruntez ere bidali daitezke agiriak, Debako Turismo Bulegora (Ifar kalea, 4 20820 Deba). Deialdiari buruzko informazio guztia Geoparkearen web orriaren ikus daiteke.



FUNEUSKADI
Grupo Anitza

FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xoilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Agur eta ohore!
Iñaki Agirre

“Predi, gogoan zaitugu”

- Eibarko E.I.A. ko lagunak -



Jose Ramon Etxebarriak jaso du Manuel Lekuona Saria

>>> Eusko Ikaskuntzak Jose Ramon Etxebarriari eman dio 2020ko Manuel Lekuona Saria, "euskararen normalizazioan zientzietako goi mailako hezkuntzan egindako ekarpen zabala, euskal kulturarekiko duen konpromiso adierazgarria eta bere obraren dibulgazioa" aitortuz. 1948an Gernikan jaio arren, Eibarren hazi zen Etxebarria. Industria Ingeniaritza ikasi zuen Bilboko Ingeniaritza Goi Eskolan eta 1987an Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) doktoratu zen. 1973an Udako Euskal Unibertsitatearen sorkuntzan parte hartu zuen eta bertako irakaslea izan zen. EHUko Unibertsitateko Zientzia Fakultatean eta Bilboko Ingeniaritza Goi Eskolan eskolak eman zituen, 2018an erretiroa hartu zuen arte. Gutxienez 18 liburu eta 22 libururen kapituluak idatzi ditu, zientzia eta kultura gaietarako buruzko ehunka artikuluz gain.

21 langile kontratatuko ditu Udalak

>>> Udalak 21 lagun kontratatzeko prozesua abiatu du, hainbat lan egiteko administrazioan zein zerbitzu arloan. Kontratazioak lanaldi osoak izango dira eta gehienak sei hilabetekoak. 21 kontratazioetatik, 18 COVID-19aren on-

dorio sozioekonomikoei aurre egiteko Udalaren txoke-planeari sartzeko dira. Enplegu-eskaintza hauek www.eibar.eus webgunean kontsulta daitezke eta, bestela, Lanbideren 943 023802 telefonora deituta ere jaso daitezke informazioa.

Lehenengoz Gure Balioak Saria jaso zuen Tere Gantxegiri agur

>>> Aurreko asteko eguenean hil zen Tere Gantxegi, 97 urterekin. Mercedes Kareagarekin batera, Goi Argi elkarteak sortu zuen 1951n eta biek batera abiatu zituzten "Talleres Protegidos Cayetano Careaga" tailerrak ere.

Gantxegik Eibarko Benefizentzia Patronatoan egin zuen lan eta 2010ean, Debegesa agentziak sustatutako Gure Balioak Saria jaso zuen, giza baloreak aitortzen duten sarien lehen edizioan. Goian bego.



"Haizea eta Sustraiak" zuzendu zuen Iñaki Agirre hil da

>>> Zapatuan hil zen Iñaki Agirre Errazkin, 63 urterekin. ETA politiko-militarreko kide izatea egotzita atxilotu zuten 1978ko abenduan eta Joxe Arregiren bizitzako azken egunetako lekuko izan zen. ETBn aritu zen lanean eta 2007an "Haizea eta Sustraiak" dokumentala idatzi eta zuzendu zuen. Bertan "Txiki"-ren bizitzaren bidez frankismoaren azken fusilamenduak ekartzen ditu gogora. Azken agurra emateko ekitaldia astelehenean egin zuten. Goian bego.



Mª TERE GANTXEGI JUARISTI

2020ko uriaren 15ean hil zen, 97 urterekin

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





Ikuspegi kontrajarriak Errebalgo lanen inguruan

>>> Aurreko barixakuan udal-letxean egin zuten prentsaurrekoan, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos udal taldeetako bozeramaileek Errebalgo lanetan lege-hauste "larriak" aurkitu dituztela salatu zuten. Esandakoari jarraituz, lanen hileroko egiaztapena (urrikoa 16. egiaztapena izan da) begiratu zutenean antzeman zituzten lege-hausteak. Euren berbetan, "UTE Iza-Campezori egin ez diren lanak ordaindu nahi dizkiete. Obra Batzordeari azalpenak eskatu dizkiogunean, bai azpikontratutako Obra zuzendaritzak, bai Udala ordezkatzan duen Obra zinegotziak, 'administrazio-irregulartasun txikiak' direla erantzun dute, horrelako lanetan ohikoak izaten dire-

la. Oposizioak ez du onartuko hizkuntzaren erabilera oker hori eta gauza bakoitzari bere izenez deituko diogu: Sektore Publikorako Kontratu Legea hausten ari dira eta horregatik jendearen aurrean erantzun beharko dute"

Prensaurreko horren harira, Errebalgo lanen zuzendaritzarekin arduratzen ari den UTE Errebal Hiru osatzen duten teknikariek idatziz erantzun nahi izan diete euren kontrako akusazioei. Diotenez, oposizioko hiru alderdiek prentsaurrekoan salatu zituzten puntu guztiak bezperan Obra Batzordean "ederki azaldu eta argitu" zituzten: "Bilera horretan, aipatutako taldeetako ordezkarien galderei erantzunez, argi eta garbi geratu zen egindako

lanen zenbateko zehatza baino ez zela egiaztatu eta Kontratuen Legean inolako lege-hausterik ez zela egin. Egia da Aldatutako Proiektuak jasotzen dituen hainbat lan egin zirela, oraindik behin-betiko onarpena izan aurretik, baina horrek ez du esan nahi legea hautsi zenik, Kontratuen Legeak hori espreski ahalbidetzen duelako". Oposizioko alderdien jokabidea "negargarria" dela diote: "Obra Batzordean gure azalpen guztiak entzun eta gero, hurrengo egunean prentsaurrekoan esan zituzten gauzak esatea lotsagarria da. Gezurretan aritzeaz gain, behin baino gehiagotan eta inolako kexa barik Eibarko Udalarentzat lan egin duten teknikarien zintotasuna zailantzan ipini dute. EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos taldeak ez badaude ados Udaleko Gobernu Taldearekin, dagokion tokian konpondu beharko dute hori!"

AUTUAN

LIBURU AURKEZPENA

Bihar 12:30ean aurkeztuko dute Ibon Muñoaren azken olerki-liburua, "Gure Ama-Lur feminista da", San Andres elizako klaustroan. Aurkezpen-solasaldia antolatu dutenen berbetan, "gure osasuna babesteko, dagoeneko klaustroa neurtu dugu gure artean distantzia nahikoa izan dezagun, sarre-ran gel hidroalkolikoa egongo da, klaustroa zabalik dago... jendea lasai etortzer-a animatu nahi dugu".

PAGATXAREN ZINE-FORUMA

Pagatxa emakumeen elkarteak "Una cuestion de genero" (2018) pelikula aukeratu du Andretxearen urriko zine-forumerako. Mimi Lederrek zuzendutako lana gaur eskainiko dute, 19:00etan, Portaleko areto nagusian. Irailean hil zen Ruth Bader Ginsburg AEBko Auzitegi Nagusiko epailearen inguruko pelikula da eta kontatzen duen istorioa errealitatean oinarrituta dago. Protagonista nagusia Felicity Jones da.



IGNACIA UNANUE ZUBIMENDI

1. urteurrena (2019-X-28)

"Ximur ederrik ez da inun,
irrixan dozuna baino"

seme-alabak, bilobak eta birbilobak





1



2

Orain dela urtebete horrelakoak ginen

Gripearen kontrako txertoa ipintzeko kanpaina hasi zuten. Juan Luis Mardaras Eibar Foball Taldeko eta Fidel Saez Arrate Filatelia Elkarteko presidentek izandakoak hil ziren. "Kaxa" proiektuak irabazi zuen Ekingunek antolatzen duen On Ekin saria. Debarreneko V. Gaztaren Astea abiatu zuten, dastatze-saio eta azokarekin. Klub Deportiboko squash taldea Euskadiko azpitxapeldun geratu zen. Zigor Astigarragak irabazi zuen Egoaziaren II. Argazki Lehiaketa. San Andres jaietarako karte-la aukeratu zuten. Eibarko Artisten Elkarteak Toledon izan zen eta Pagatxa emakumeenak Burgosera egin zuen irteera. Bertsolari Txapelketako saioa jokatu zen Coliseoan. Udazkentrail mendia irteera egin zuten Kalamua Korrikalari Taldekoek. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketako 42. edizioa egin zen. Harrera beroa egin zioten Debarreneko Orfeoari Salamancan.

1- Egoaziak kontsumo arduratsuen inguruko azoka egin zuten. 2- Debarreneko Gaztaren Asteak baserri mundua gerturatu zigun. 3- Eibarko Artisten Elkarteak Toledora egin zuen irteera. 4- Ekinguneren On Ekin saria "Kaxa" proiektuarentzat izan zen. 5- Debarreneko Orfeoak arrakasta izan zuen Salamancan. 6- Deporrek squash taldea Euskadiko finalean izan zen beste behin.



3



4



5



6



Gazta azoka egingo dute domekan Untzaga plazan

Domekan, urriaren 25ean, egingo da bosgarrenez Debabarreneko Gazta Azoka Eibarko Udalak eta Debemen Debabarreneko Landa Garapenerako Elkarteak antolatuta. Ekimenarekin gure eskualdeko gazta-ekoizleek egindako lana ezagutzera eman nahi dute. Pandemiak eragindako egoera dela eta, egitaraua, aurtengoan, aurrekoetan baino xumeagoa izango da. Segurtasun-neurri guztiak berrmatuko direla esan dute antolatzaileek.

Domekan, goizeko 10:00etatik 14:00etara, Gazta Azoka egingo da Untzaga plazan. Aurreko edizioetan bezala, azokan eskualdeko gaztagileek egiten dituzten gazta ezberdinak probatzeko eta erosteko aukera izango dugu. Debemen-etik azaldu digutenez, "aurreko urteetako edizioetan gazta azoka Debabarreneko gaztaren as-tearen barruan ospatzen da, baina aurreko bizi dugun osasun egoera larriagatik, hainbat

ekintza bertan behera geratu dira eta egitaraua soilik gazta azoka egitera mugatuko da".

Dena dela, azoka segurtasun berme guztiekin egingo da, "beharrezkoak diren segurtasun-neurri guztiak hartuko dira", aurreratuko dute. Izan ere, distantziak errespetatu behar dira eta ikusle-erosleen eskura gel hidroalkoholikoak jarriko dira.

Gure eskualdean egiten diren gaztak kontsumitzaileari aurkeztu eta gaztagileekin elka-

rizketa izateko aukera ederra da Gazta Azoka.



Domekan Untzagan egongo diren gaztagileak :

Beñat Egaña GOIENE-TXE Baserria -Mutriku.

Ardi gazta

Enrike Gisasola SOSOLA Baserria - Eibar. Ardi gazta ekologikoa

Nagore Martin EGOTZA Baserria - Soraluze. Ahuntz gazta

Ruben Markina MALLE-GOI Baserria - Mallabia. Axeleku Behi gazta



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Bidebarrieta, 20
Especialistak plater prestatu
eta haragi bikainetan
**ETXERA
ERAMATEN DIZUGU**

943 20 16 69

@Oberenaharategia





Juan Larreategi Bizkaiko ermiten inguruko lan mardula egiten dihardu. JUAN LARREATEGI

<<< **JUAN LARREATEGI** • Bizkaiko ermiten inguruko ikerketa >>>

“80 urtetik gorakoen testigantzak jasotzea premiazkoa da baselizen inguruan”

Juan Larreategi eibartarra Bizkaiko ermiten inguruko ikerketa egiten dabil, baselizak irudikatuz eta geolokalizatuz. ermitasdevizcaya.com webgunean jaso ditu datuak eta etengabe dihardu osatzen orria. juanlarreategui.com web orrian, bestetik, hainbat urtetan egindako ikerketak daude ikusgai: Eibarko frutarbolak, Eibarko ermitak, eta abar.

Nolako lana egin duzu Bizkaiko ermiten inguruan?

Nire lehen asmoa Bizkaiko baselizen argazkiak egitea zen, baina lagun batzuek esaten zidaten argazkiekin bakarrik motz geratzen zela, hobe zela datu gehiago jasotzea. Beraz, datu bila hasi nintzen. Udal batzuek Interneten dituzte datu horiek, baina beste batzuk liburuetan eta adituen lanetan

daude. Gurutzi Arregi etnografoa izan da gai horren inguruan lan gehien egin duena eta Bizkaiko Ermitak (1987) liburitik datu asko atera ditut. Bestetik, Interneten Bizkaiko irradi-amateurren webgunea aurkitu nuen eta 450 ermita inguruko zerrenda zuten egin da. Arregik dio Bizkaian guztira 800 ermita inguru egon izan direla.

Gaur egun zutik daudenak bakarrik jaso dituzu lanean?

Asmo horrekin hasi nintzen, baina desagertutakoak ere jarri ditut. Kasu horretan, mapak edo margoak erabili ditut irudikatzeko. Ez da Bizkaiko kasua, baina Eibarren, adibidez, San Esteban ermitaren marrazki bat aurkitu dute, Julen Zabaletak egindakoa. San Andres eliza ageri da eta, koka-

pena ikusita, Julian Etxeberria kalean zegoela esan daiteke. Bestetik, ermita bat suntsitzen denean gurutze bat jartzen dute batzuetan eta ikur edo aztarna horiek ere jaso ditut. Gainera, presuntzio arkeologiko eremuak deitzen direnak daude; nahiz eta guk ezer ez ikusi, arkeologoek, euren lanaren bitartez, zerbait atera dezaketenez guneak dira.

Zenbat ermita aurkitu dituzu zutik?

400-500 inguru, baina zentzu horretan zalantza bat daukat, ez dakidalako noiz den ermita bat eta noiz ez. Lagun batek esan zidan badagoela arau teoriko bat, beti betetzen ez dena, eta horren arabera ermitetan ezin dira sakramentuak eman (bataioa, jaunartzea, konfirmazioa, ezkontza eta oliadura). Esan ohi da ermita edo baseliza bat mendian edo herrigunetik kanpo dagoen santutegi edo baserri bat dela, baina ez, ermita handiak herriguneean ere badaudelako. Sakramentuei dagokienez ere, teoriak dio ezin direla egin, baina ermitetan ezkontzak egin izan dira.

Informazio asko jaso duzu, argazkiak, geolokalizazioa... Zenbat denbora behar izan duzu ikerketa-lana egiteko?

Lehen argazkia 2011n egin nuen eta poliki-poliki joan naiz besteak egiten. Hasieran ez nuen asmo berezirik, baina argazkiak egiten joan nintzen eta ikusi nuen oso leku txikian ermita asko pilatzen zirela.

Lortutako informazioa zure webgunean jaso duzu, baina zerbait gehiago egiteko asmoa duzu?

Uste dut momentu honetan garrantzitsuen ermiten inguruko ahozko ondarea jasotzea dela. Datuak pilatzeko orduan lan asko dago egiteko, baina liburuetan eta artxiboetan badago informazioa eta pixkanaka hutsuneak bete daitezke. Orain 80 urtetik gorako jendearen testigantzak jaso beharko lirarteke. Eibarren horretan dabil-

“Bizkaiko 750 ermita inguru geolokalizatu ditut eta Google Mapsen daude ikusgai”



“70. eta 80. hamarkadetan, frankismoaren amaieran, ermita asko erre zituzten”

tza eta Zaldibarren ere hasiko dira. Bestetik, erakusketak egin izan ditut, baina orain webgunearekin informazio guztia denon eskura dagoela uste dut. Baselizen kanpo aldean paperak jartzea ere pentsatu dut informazioarekin. Gainera, QR kodea jarri daiteke eta, eskaneatuz gero, ermitaren inguruko ahozko ondarea jasotzen duen audioa entzun daiteke eta ermita barruko 360º-ko argazkia ikusi, normalean itxita egoten direlako eta ezin delako barrukoa ikusi.

Nola moldatu zara ermitak geolokalizatzeko?

Bizkaiko 750 bat geolokalizatu ditut eta Google Mapsen daude ikusgai. Batzuk erraz aurkitzen dira, bistan daudelako, baina beste batzuk zailak dira. Adibidez, Zaldibarren Ulantzuko San Kristobalgo ermita zegoen, baina Ulantzu ez da mapetan agertzen. Alkateak toponimia liburu bat eman zidan eta Ulantzu berba Garitaonandia baserriaren paperetan agertzen da. Gero, Santa Marinatik kilometro

batetara zegoela jakin nuen eta, datu horrekin, kilometro bateko radioa marraztu nuen mapan. Eta azkenik, esan zidaten Garitaonandia baserriatik Santa Marinara bide bat zihoala eta erromeriak eta hiletak egiten zirela. Pista guzti horrekin ermitaren kokapenaren hipotesia sortu daiteke, baina ez da zehatza. Ermita hori 1799an desagertu zen eta gurutze bat jarri zuten. Beraz, inguruko baserrietan galdetu behar da aztarnarik geratzen den jakiteko. Orain, sare sozialen bitartez, sarean galdetu eta errazagoa da horren inguruan zerbait dakien baten bat aurkitzea.

Sare sozialak lagungarriak izan dira baselizak aurkitu eta kokatzeko orduan?

Bai. Adibidez, Indalecio Ojangurenen argazki bat ikusi genuen, baina gaizki etiketatuta zegoen eta ez genekien zehazki non zegoen eginda. Lagun batek esan zuen bertan agertzen zen mendia Jata zela, Mungian, eta bai, horrela zen. Hari horretatik tiraka jakin ahal izan genuen zein ermita zen. Bestetik, Eibarren ere beste ermita bat aurkitu dut horrela. San Rafael ermita erre egin zuten eta El Diario Vascon agertu zen, baina esan zidaten ez zela egunkariaren artxiboetan agertzen. ABCn, ordea, bai. Antza denez, nahita erre zuten. 70. eta 80. hamarkadetan ermita asko erre zituzten, frankismoaren amaieran izan zen antikerikalismoaren ondorioz uste dut. 30. hamarkadan gertatu zen fenomenoaren antzeko zerbait.

*“Oroimena galtzerakoan etorkizuna galtzen da”
esan zenuen. Guk, zure bidea jarraiki,
oroimena lantzen etorkizuna irabaziko dugu.*

Agur eta ohore, Iñaki



Artile' denda ez da artilez-ko produktuak saltzen dituen denda hutsa. Artilearen inguruko komunitatea sortu duen instituzioa da, ez Eibarren bakarrik, baita probintzia osoan ere. Horregatik, hutsune handia sentituko da abendutik aurrera, Isabel San Millan Amuategi jubilatzen denean.

Isabelek artilea lantzea maite izan du beti. "Artilea makinarekin eta eskuz lantzen nuen etxean, bi moduak uztartuz", kontatzen digu. 'Artile' denda berak hartu baino bi urte lehenago zabaldu zuten eta Isabelek artilea bertan erosten zuen. "Orduan, denda hartzeko eta buruan nituen asmoak praktikan jartzeko aukera izan nuen", dio.

Izan ere, artileari balioa emateaz gain, Isabel ez da artilez-ko produktuak egitera mugatu, haratago joan nahi izan du. "Moda gustatzen zait eta artilea modako jantziak egiteko erabili nahi izan dut, ez izatea jantzi arrunt bat", azaltzen du.

Denda ireki eta bi urtera moda-desfilea egin zuen Arrate hotelean. "Booma izan zen! Ez zegoen tokirik jende guztiarentzako eta saio bi egin behar izan genituen", gogoratzen du. Gero ere beste desfile batzuk egin izan ditu (Bilbon, Bartzelonan...) eta, denda berezia izanik, hedabideetan ere hainbatetan agertu da. "...eta kitto!-n egin zenidaten elkarriketa baten harira ETBtik, Antena 3etik, irratitik... deitu zidaten", kontatu digu esker onez Isabelek.

Behin, artileak Madrilgo Salamanca auzo eskusiboko hotel batera eraman zuen Isabel. "Esperientzia berezia izan zen", dio. "40 lagun inguruk hartu genuen parte eta norberak hoteleko bere logela salmentatoki edo denda bihurtu behar zuen. Artilearekin egindako eztei-jantzi bat eraman nuen eta arrakasta izan zuen", gogoratzen duenez.

Artilearekin berritzeaz gain, artilea nola landu ere irakatsi du 'Artile'-n. "Hasieratik ikusi nuen jendeak artilea nola lan-

Zikloa amaituta, haria ez da etengo

Gauza guztiek dute hasiera eta amaiera bat. Zikloak bete egiten dira, belaunaldi batek besteari lekukoa lagatzen dio eta horrela egiten dugu aurrera. Artile eta Kofiña dendetan ere iritsi da urte asko iraun duen zikloari amaiera emateko ordua. Isabelek eta Marijosek hainbeste maite dituzten dendak lagako dituzte, baina zikloa amaitu arren, eurek jositako haria betirako geratuko da bertan.



du behar zen ikasi behar zuela. Izan ere, artilea erostera etortzen ziren eta gauza asko galdeztzen zizkidaten, baina ez nuen nahikoa denborarik den-dena ondo azaltzeko, dendaz arduratu behar nintzelako", kontatu digu. Beraz, klaseak ematen hasi zen. "Poliki-poliki hasi nintzen, baina taldea handitzen joan zen", dioenez.

Urte askoan zehar astean hiru aldiz hainbat talde bildu dira dendan josteko. Baina ez hori bakarrik. "Harreman estua sortu da gure artean eta momentu ederrak bizi izan ditugu elkarrekin", dio. "Eta ez da emakumeentzako toki itxia izan, gizonentzako ere etorri direlako jostera. Bikain egiten zuten gainera", kontatu digu.

Itxieraren atarian atzera begira jarri da eta 37 urteko ibilbidearen errepaso horrela laburtzen du: "Oso esperientzia ederra izan da". Orain, jubilaioaren aurrean sentimendu kontrajarriak ditu: "Batetik, pozik nago etapa bat amaitu eta bizitza berri bat hasteko. Baina, bestetik, 37 urtean dendan egon ondoren, gauza azko botako ditut faltan". Bizipen, istorio, ezagutza eta sentimenduz beteriko urteak izan dira. "Jende asko ezagutu dut eta eurei esker jarraitu dut hemen", dio esker onez.

Atsedean hartzeko sasoi hasiko du Isabelek orain, baina buruan baditu ideia batzuk eta, afizio hutsez bada ere, artilea maitasunez lantzen jarraituko du.

Eibarko umeak janzen

Marijose Cruz Mancera hilabete darama jubilatuta, baina sarritan joaten da 'Kofiña' dendara, "landareak ureztatzen", berak dioenez. Orain dela 35 urte erein zuen dendaren hazia eta gaur egun herriko merkataritzaren ikurretako bat izateraino hazi da.

'Kopina' ez da ogibidea bakarrik izan Marijoserentzat, "seme edo alaba bat bezalakoa da", dio sentikor. Orain, hainbat urtetan berarekin lan egin eta ikasi duten ilobek hartu dute denda mimatzeko lekukoa. "Denda oso esku honetan dago eta horrek lasaitzen nau", dio.

Marijosek beti nahi izan zuen umeentzako erropa-denda bat zabaltea. "Txikitako ilusioa zen", bere berbetan. Ama jostuna zen eta txikitatik jaso zuen modaren, jostintzaren, ehunen eta jantzigintzaren ezagutza. Oinarri horrekin, arriskatu egin zen. "Ahizpei denda sortzeko proposamena egin nien, baina inbertsio handia egin behar zen eta beldurra eman zien", kontatu digunez. Marijosek, ordea, aurrera egin zuen.

'Kofiña'-k 1985ean ireki zituen ateak Arragueta kaleko lokal batean. "Zulo bat zen, ondoko dendaren biltegia", gogoratzen du. "Eskaparatea



Ezkerreko orrian 'Artile' dendako Isabel eta orri honetan 'Kopiña' dendako Marijose. EKHI BELAR

zabaldu behar izan genuen eta barrualdea goitik behera aldatu". Dena dela, lan gogorrak fruituak eman zituen.

Dendak 10 urte egin zituen Arraguetan, San Agustin kalea pasa aurretik. Arraguetako lokala txiki geratu zitzaion eta 'Garoa' bidai-agentziaren lokala hartu zuen. Hala ere, hau ere ez zen nahikoa izan 'Kopiña'-k behar zuen espaziorako, sasoi oparoa bizi zen herrian, eta

alboko etxean bizi zen atezainaren etxebizitza erosi zuen, dendarekin batzeko. Orduan bai, 'Kopiña'-k behar zuen tokia aurkitu zuen, gaur egunera arte.

Denda sortu eta urtebetera Marijoseran ahizpa bat dendan lanean hasi zen eta gero beste bat. "Pertsonala behar genuen", dio Marijosek. Izan ere, 'Kopiña'-k hasieratik izan du eibartarren eta inguruko herrietako jendearen onespena. "Ezin dut

berbekin azaldu jendeari diodan esker ona", dio hunkituta, "eurek barik dendakezingu luke aurrera egin".

Marijosek asko jaso du dendan, baina baita zerbait eman ere. "Ahalik eta arreta onena ematen saiatu naiz beti, bezeroekin zintzoa izaten eta jendearen gustoko produktu onak ekartzen", azaldu digunez. Izan ere, amarekin ikasitakoa oso baliagarria izan zaio 'Kopiña'

hornitzeko erropa aukeratzeko orduan. "Modaren inguruko kontuak adi jarraitzea eta kalera irten eta jendeari zer gustatzen zaion ikustea berebizikoa da", bere ustez.

Herriko haur eta gazteak jantzi dituen Marijosek bizitza berria hasi du orain. "Pandemiaren ondorioz pixka bat itxaron beharko dut bidaiatzeko, baina Eibartik paseatzea izugarri gustatzen zait", dio pozik.

Gabonetako OTARRA

1.500 €ko balioa duen Otarra
1.000€ produktutik eta 500€ko erositako-torturik

Prezioa: 1€
Zeki:

ETA
Euskara Elkarteak

El Corte Inglés

— salmenta lekuak —

- ARRIOLA PRENTSA
- ECHETTO PRENTSA
- ARRIAUNDI OKINDEGIA
- OTEGI HARATEGIA
- MARIA OSPITXAL
- AMETSA TABERNA
- GURIDI TABERNA
- IZADI LORADENDA

centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- Análisi Klinikokoak
- Barne Medikuntza
- Dermatologia
- Dietetika / Nutrizioa
- Erizaintza
- Familia medikua
- Fisioterapia
- Foto-depilazio Unitatea
- Kardiologia
- Kirurgia
- Kirurgia (aurpegi-masaila)
- Kirurgia baskularra
- Koloproktologia
- Neurofisiologia
- Ortodontzia
- Otorrinolaringologia
- Psikologia
- Radiologia
- Traumatologia
- Urologia



Lehiaketa berria jarriko du martxan bihar ...eta kitto!-k

>>> Ezetz asmatu zenbat pisatzen duen! lehiaketa izango da bihar, zapatua, 12:00etatik 14:30era Untzagan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Elkarreak antolatuko duen lehen saiorako bi tarta izango dira egunean bertan ikusgai: bata El Tío Palancasek emandako gozoki-tarta izango da, eta bestea San Andres gozotegiak eskainitako ohiko tarta ederra. Parte hartzen duenak bi tarta horiek elkarrekin zenbat pisatzen duten asmatu beharko du; horretarako,

2 euro ordainduta, mahaian bertan ikusgai egongo diren hainbat pisuren artean aukeratu beharko du, eta pisu zehatza asmatzen duenak eramango du saria (tarta biak eta hiru botila xanpain); pisu zehatza ez badu inork asmatzen, gehien hurbildu dena (pasatu gabe) izango da irabazlea.

Gauzak ondo, datozen hila-beteetan lehiaketarekin jarraitzea aurreikusita du Elkarreak. Azaroaren 28an eta abenduaren 12an berriz ere aterako du lehiaketa kalera.



Buztin polimerikoa erabiltzen ikasteko tailerra

>>> ...eta kitto! Euskara Elkarreak buztin polimerikoari buruzko tailerra antolatu du datorren eguaztenerako, urriak 28, arratsaldeko 18:30etik aurrera Arrate Kultur Elkartean.

Arima Cooltour-en eskutik figurak eta abalorioak egiteko balio duen material berezi hori nola erabili ikasteko aukera eskainiko du saioak. Buztin polimerikoa moldekatzeko erabiltzen den oreka da; malgua da, erabilterraza eta egosteko-prozesu errazekoa. Nahikoa da etxeko labe bat eta 100º eta

130º arteko tenperatura, pasta horrekin sortzen den edozein pieza gogortzeko.

Ikastaroa heldu zein umeei zuzenduta dago, baina haurrek heldu batekin batera jardun beharko dute (heldu bakoitzeko bi ume asko jota).

Izena emateko ...eta kitto!-ra deitu behar da (943200918) edo elkarte@etakitto.eus-era idatzi. Osasun-neurriak zaintzeko parte-hartzaile kopurua mugatua izango da. Askok jota 20 laguneko taldea osatuko da. Tailerrak 3 euro balio du.

Sare sozialetan euskaraz jarduteko ikastaroa berbalagunentzat

>>> Ikastaroa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarreak Interneten eta sare sozialetan euskaraz eta seguru jarduten ikasteko. Berbetan mintzapraktika-programako berbalagunei eskainitako hitzaldia Xabier Martin adituak emango du urriaren 27an arratsaldeko 18:30etik aurrera Arrate Kultur Elkartean. Aplikazioak euskaraz deskargatzeko eta sistemak euskaraz konfiguratzeko moduak izango ditu hizpide Martinek eta euskaraz erabili ditzairegun aplikazioak azalduko ditu. Horrez gain, sarean gaudenean erabiltzaileen pribatutasuna nola babestu, zein tresna erabili eta Interneteko arriskuei buruz ere hitz egingo digu adituak.



San Andres Bertso Jaialdia Coliseoan izango da aurten

Berritasun bi izango ditu aurten San Andres bertso-jaialdiak: batetik, eguen batean egingo da, azaroaren 26an, hain zuzen ere, eta, bestetik, Coliseo antzokiak hartuko du jaialdia; orain arte, barixaku edo domeketan egin izan da, San Andres jaien inguruan, eta Portaleko areto nagusian. Jaialdian jardungo duten bertsolariak ere lotuta ditu ...eta kitto!-k: Andoni Egaña, Maider Arregik, Aitor Mendiluzek eta Oihana Iguaranek jardungo dute nor baino nor Jon Mikel Mugika gai-jartzailearen esanetara.

Bestetik, abian da XXVI. San Andres Bertso Paper lehiaketa ere. Urteroko moduan maila bi izango ditu lehiaketak: bata, 16 urtetik beherako Eibarko ikasleentzat, eta bestea, 16

urtetik gorakoentzat (Euskal Herri osorako). Gaia eta doinua libreak izango dira. Gazteenek bertso bat edo bi kopia aurkeztu beharko dituzte, eta nagusiek, berriz, lau puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez eta 10 gehienez. Lanen hiru kopia bidaliko dira gaitzizentarekin, eta gutunazal itxi batean egilearen datuak hona: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Urkizu 11 solairuartea. 20600 Eibar. Nagusien mailan irabazleak txapela eta 300 euro irabaziko ditu eta bigarrenak plaka eta 250 euro. Gazteen arteko irabazleak, berriz, txapela eta liburua irabaziko ditu, eta bigarren sailkatuak plaka eta liburua. Irabazleek Coliseoko bertso-jaialdian jasoko dute saria.



Andoni Egaña, Maider Arregi, Aitor Mendiluze eta Oihana Iguaran izango ditugu aurtengo edizioan

Mallabiko Estakua baserria bisitatuko dute bihar guraso berbalagunek

Ikasturteko lehenengo irteera egingo du bihar, zapatua, Gurasoak Berbetan egitasmoak; 25 lagunek eman dute izena eta aurreikusitako leku guztiak, beraz, bete egin dira. Guraso berbalagunek eta euren familiariek Aitzol Uriarteren baserria eta bertako ekoizpena bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute: behiak eta larreak nola zaintzen dituzten, jogurta nola egiten duten... Prozesu guztia ezagutuko dute.

Gurasoak Berbetan programa gurasoen artean euskara-

ren erabilera bultzatzeko sortu zuen ...eta kitto!-k Berbetan mintzapraktika-programaren barruan. Urtean zehar jarduerak ugari antolatzen ditu elkarteak guraso berbalagunentzat eta haien seme-alabentzat: txangoak, tailerrak, ikuskizunak... Eta guztiak izaten dira doan.

Parte hartzeko aukera desberdinak daude: batzuk, asatean behin elkartzen dira taberna batean beste berbalagun batzuekin batera, ordubetaz euskara praktikatzeko; beste



batzuk, berriz, talde naturalak, hau da, lehendik eginda dauden taldeak aprobetxatzen dituzte (parkeko taldea, kuadrilla...), eurek erabakitako momentuan euskaraz hitz egiteko.

Urte osoan eman daiteke izena eta doan da.

**Informazio gehiago:
elkartea@etakitto.eus
943 20 09 18**



Enrike Sosola

ENRIKE SOSOLA

Baserria itotzen duelako

Ez naiz eukaliptoaren aldekoa. Baserritarra izanik, nola ba? Izan be, arbola hau nagusi den lekuetan ez dago nekazaririk. Australiatik ekarritako zuhaitzak baserritarra lur-jabe huts bihurtu du. Begira ezazue zer gertatu den Galizia, Asturias, Portugal eta, zoritxarrez, Bizkaiko herri askotan. Eta galdetuko duzue: non datza bere kaltea?

"Eukaliptoak lurrari asko kentzen dio eta gutxi eman"

1. Oso azkar hazten da eukaliptoa. 15 urtean gizendu eta mozteko moduan da. Horretarako lurrari asko kentzen dio eta oso gutxi eman. Ondorioz, hurrengo belaunaldiak lur antzuekin egiten dute topo. Etxalde horretan erreleboa ezinezkoa da.
2. Bizkor hazteko, ura ere izugarri behar du eukaliptoak. Australian, bere sorterrian, ur-putzuak sikatzeko erabiltzen dute, eltxo gogaikarriak desagertarazteko. Abereak dituzuen baserritarrak argi ibili! Zuen auzoko mendietan eukaliptoak sartzen bada iturriak agortuko dira eta behi-ardi-ahuntzek ezinbestekoa duten ur-horniketa arriskuan izango da.
3. Sukoia da eukaliptoak. Sua erakarrri eta beste landareak menderatzeko erabiltzen du. Modu berean, inguruko etxe eta basoak arriskuan beti. Baserritarra beldurra aidean beti.
4. Baso emankorrean basurde, orkatz, azkonarrek topatzen duten janik ez da eukalipto-landaketan. Nora joango dira gosetzen direnean? Nora izango da ba, nekazariaren zelaibarzetara. Lehen gutxi ez eta...
5. Tratantea pozik da eukaliptoak ugaritzearekin. Baserritarren betiko bizkarroia.
6. Eukaliptoaren landaketaren aitzakian lurra erosten dute zenbait dirudunek. Kapitala ezkutatzuz, lur-premian dagoen inguruko abeltzain zein instalatzea nahi duen gaztearentzat izorategia.
7. Kaletar eta baserritarren arteko lubana handitu egiten du eukalipto-landaketa masiboak. Elkarrenganako aitortza urrunduz, kaletar batzuek baserritarra ingurumena kalteztzen duenaren irudiarekin gelditzen dira, eta baserritarra bezero horiek gabe.

Gora bioaniztasuna! Eukaliptoak ez du errurik. Monokultiboaren industriari du ardura nagusia. Landare ederra da, azkarrak, gogorra, urdina. Gure semealaben etorkizuna hipotekatzea ez da eskubidea, astakeria da. Baso-kolore asko eta baserritar ugari behar ditugu. Izan ere, zer litzateke Euskal Herria nekazaririk gabe?



Josu Agirre

JOSU AGIRRE

Heroiaren heriotza (Eddie Van Halenen omenez)

Robert Zemeckis zuzendari handiaren 1985ko *Back to the future* filmean (gure artean, *Regreso al futuro* bezala ezagutzen duguna), *Marty McFly* gazteak denbora-makina bihurtutako itxurazko *Delorean* auto zoragarri bat ezustean gidatzen hasi eta, halako batean, atzeraka 30 urteko jautzia egin ostean, 1955. urtera ailegatzen da.

Pelikulako eszena guztien artean, badago bat bere momentuan markatuta utzi zidana: Marty etorkizunean bere aita izan beharko lukeen George McFly gaztearekin topatzen da. Handik gutxira Martyk Georgen etxean sartzea erabakitzen du, gauzez eta ezkutuan.

"Van Halenen heriotza 2020an bizi dugun uholdearen zurrumbiloan murgildurik desagertzen den beste albiste txar bat ez izatea nahiko nuke"

George ohean lo seko dagoen bitartean, Martyk, babes anti-nuklearreko jantzi bat soinean duela, estralurtar baten itxurak eginez, mezu bat eman nahi dio George giza joari. Hura esnazarazteko, "VAN HELEN" taldearen cassettea duen "walkman-a" martxan jarri eta aurikularrak zuzenean George-ri belarrietan jartzen dizkio.

Georgek hartzen duen sustoa egundokoa da: Vulcano planetatik etorritako Darth Vader ohe ondoan agertu eta hizketan hasi zaio, eta bitartean Eddie Van Halenen gitarraren burruindara basatiak belarrietatik burmuineraino sartzen ari zaizkio.

Hilabete honen hasieran, aspalditik bakean lagatzen ez zion eztarriko minbizi baten ondorioz, EDDIE VAN HELEN gitarrista ospetsuaren heriotzaren berri izan dugu, eta ezustean harrapatu gaitu haren heriotzak. 2020. urte gogor honek hainbat albiste gaizto ekarri dizkigun arren, Van Halenen heriotza uholdearen zurrumbiloan murgildurik desagertzen den beste albiste txar bat ez izatea nahiko nuke.

Noizbait gitarra elektriko bat esku artean eutsi eta egurra lantzateko grina sentitu izan duen (izan dugun) edozein neska-mutilentzat, Van Halen bene-benetako heroia zen. Aldiz, heroia ez dira hiltzen, ezta? Ala heriotza bera da heroi bihurtzen dituen? Tira, zer dakit nik. Eddie Van Halenek gitarra elektrikoaren historia goitik behera aldatu zuen, ordura arte sekula entzun ez ziren soinuak sortuz, eta dena irribarre zabal eta ederra aurpegian uneoro zuelarik, bizipozaren erakusle.

Adiorik ez, Eddie Van Halen, etengabeko irribarrearen gitarrista estralurtarra. Askoren heroia eta nirea. Goian bego.



Azalpen handirik eman beharrik ez dago jakiteko erreportajeari hasiera ematen dion argazkia ez dela azken hilabeteetakoa. Izan ere, une honetako osasun-egoeran pentsaezina da hainbeste jende toki berean biltzea; are gutxiago, musukorik gabe.

Gauza jakina da COVID-19ak muga eta traba asko ekarri dizkigula maila askotan, eta horien artean kultura ere izan da galtzaile. Sektorea gorriak ikusten ari da, eta argi dago aurrera egin ahal izateko lana izango duela.

Kazetaria: **Malen Illarramendi Beitia**

GAZTEON

Kultura segurua da



Zer diote elkarrizketatuek?



MAIALEN BERGARA

Bertsolaria
(27 urte)

“Egoera berrira egokitu behar izan dugun arren, lehen egiten genituen ekintza gehienak egiten jarraitzen dugu, protokoloak errespetatuz”.



MAITANE FARIÑAS

Dantzaria Kezka Taldean
(22 urte)

“Momentu batez zalantza egin genuen dantza-eskola aurrera eraman ahal izango ote zen. Eta pena handia da hainbeste urtetako lana hain denbora gutxian zapuztuta gera daitekeela ikustea”.



XABIER ORUESAGASTI

Musikaria
(25 urte)

“Egia da dirulaguntzak sartu direla, baina ez dira nahikoak. Sektorearen izaera oso berezia da, beraz, neurri eta dirulaguntza bereziak behar ditu”.



ANDREA COVADONGA

Aktorea
(27 urte)

“Sentsazio arraroa sentitzen dut antzezten dudanean: musukoarekin ez ditut ikusleen adierazpenak eta keinu naturalak ikusten”.

Oraingoan Eibarko kultura arloko 4 gazterengana jo dugu bakoitzaren arloko egoera zein den azaldu diezaguten:

Eibarko Kezka Dantza taldeko Maitane Fariñas; Xabier Oruesagasti musikaria; antzerki zein aktore lanetan diharduen Andrea Covadonga; eta Eibarko Hankamotxak Bertso Eskolako kidea Maialen Bergara. Nola eragin die koronabirusak arlo hauetako bakoitzari? Zein egoeratan daude orain? Zer egin daiteke krisi kultural hau gainditzeko?

Gaurko lau protagonistak bat datoz esatean azken hileotan Eibarko kultura, eta orokorrean kultura-sektorea, egoera larrian dagoela. “Gogorra”, “beldurra”, “zaila” eta “kezka” izan dira haien ahotik ateratako lehen hitzak. Esanguratsua, zalantzarik gabe.

Sektorea, beste asko bezala, gorriak ikusten ari da: zinaretoak eta antzokiak erdi hu-

“Era horretako ekimenei esker, kulturaren aldeko oihartzun apur bat egitea lortu dela esango nuke”
Maitane

“Kultura mimatu behar dugu, ez dezagun ahaztu kulturaren osasuna bere gizartearen isla dela”
Xabier



tsik daude; musika- eta dantza-emanaldi asko eta asko bertan behera utzi edo atzeratu egin dira; jaialdiak eta festibalak berriro martxan jartzeko zain daude... Hain da latza egoera, non sare sozialetan nazioarte mailako hainbat kanpaina abiarazi diren jendea egoeraren larriaz kontzientziatzeko (#kultura-segurua, #alerta gorria, besteak beste). “Era horretako ekimenei esker, konfinamenduaren ondoren ere kulturaren aldeko oihartzun apur bat egitea lortu dela esango nuke” dio Maitanek. Eta honakoa gehitu du bertsolariak: “Kulturak pandemia honen momentu zailenak arindu edo gozatu dizkigu; izan ere, etxean egon behar izan garen denbora luze horretan hamaika izan dira kulturak, bere aniztasunean, eskaini dizkigun ekintza, programa, saio eta beselakoak”.

Prebentzio-neurrien inguruan galdetuz gero, ez dute za-

lantzarik egiten: beharrezkoak diren higie-ne eta prebentzio-neurriak hartzen dituzte entsegu eta emanaldietan. Horrela azaldu digu Maialenek: “Entseguetan, gel hidroalkoholikoa eskura daukagu uneoro, segurtasun-distantzia zaintzen dugu eta musukoa jantzita izaten dugu. Bertso-saioetan, eserleku batetik bestera distantzia mantentzen dugu, aurretiaz gonbidapena edo sarrera erosi beharra dago, eta sarrera zein irteera kontrolatzen ditugu”.

Begibistakoa da herritarren artean egoerarekiko ezjakintasuna eta beldurra direla nagusi, eta horren ondorio ere badela kulturaren beherakada. Xabier Oruesagastik, sektoreko profesional moduan, ikusle eta herritarrei mezu bat bidali nahi izan die, zera esanez: “Kontzertuak seguruak dira, lasai asko joan zaitezke edozein kultura-jardueratarara. Gainera, orain inoiz

“Kulturarik gabeko gizartea arimarik gabeko gizartea dela esango nuke”

Andrea

baino gehiago, kultura mimatu behar dugu, ez dezagun ahaztu kulturaren osasuna bere gizar-tearen isla dela”.

“Kulturarik gabeko gizartea...” Esaldi horri amaiera emateko eskatu eta honela definitu dute gure protagonistek kulturarik gabeko gizartea: “Arimarik gabeko gizartea” dio aktoreak; “Herriarentzako katea” azpimarratzen du bertso-lariak; dantzariaren hitzetan

“Kulturak pandemia honen momentu zailenak arindu edo gozatu dizkigu”

Maialen

“sarrailarik gabeko atea”; eta, musikariak horrela borobildu du: “Identitatea eta arima galdu duen gizartea”. Esaldi hauek irakurri ostean ezer gutxi geratzen da gehitzeke, ezin hobeto azaltzen baitute kulturarekiko herritarren sentimendua.

Kultura eta digitalizazioa

Ezin aipatu gabe utzi pandemia honetan digitalizazio-pro-

zesuak izan duen eginkizuna. Izan ere, kulturak izugarrizko aurrerapena egin du digitalizazioaren arloan, eta berrasmatu egin behar izan da. Ekimen eta proposamen kulturalak ez dira gelditu pandemia garaian; aitzitik, teknologia erabili dute pertsonak entretenitzeko tresna eta plataformagisa. Horren adibide dira streaming bidez egindako kontzertuak; Netflix, HBO eta antzeko plataformek izandako arrakasta; Spotify-k izandako erreproduktzio ugariak...

Gauzak horrela, argi dago kultura babestu nahi badugu, sortzen jarraitu behar dugula, eta hori guztion lana dela. Emanaldi eta saio kulturalak arnagune izan behar dira herritarrentzat, eta horretarako, beldurra alde batera laga, eta osasun- eta prebentzio-neurriek lagatzen duten heinean, goza dezagun Eibarren kulturak ematen dizkigun aukerez.



Xabier Oruesagasti



Maialen Bergara

Nola aurreikusten dute etorkizuna?

MAIALEN BERGARA

“Esango nuke Eibarko bertsolaritza asko zabalitzen ari den alor bat dela. Gaztetxoen bertso-eskola sortzeko lanetan gabilta, ilusio handia egiten digu eta herriarentzat oso aberasgarria izan daitekeela iruditzen zaigu.”

XABIER ORUESAGASTI

“Garrantzitsua da sektore honetako izaera ondo aztertzea eta neurriak aplikatzea. Musika eta artearen etorkizuna guztion esku dago. Gizarte moduan gure lehentasunak zeintzuk diren argi izan behar dugu”-

MAITANE FARIÑAS

“Pixkanaka emanaldi gehiago egiteko aukera izatea espero dut, alternatiba berriak topatzea. Euskal Jaian egin genuenaren antzera, Untzaga plazan jarrita ikusteko emanaldia izan beharrean, kalejirak egin genituen Eibar osoan zehar”.

ANDREA COVADONGA

“Jende gehiago animatzea espero dut; horretarako konfiantza behar dute eta horrela izatea espero dut. Bizi dugun egoeran ezin jakin etorkizunean zer gertatuko ote den”.



Ezetz asmatu



zenbat
pizatzen
duen!



BI TARTEN PISUA
ASMATU ETA ZURETZAT
IZANGO DIRA!!!

XANPAINA OPARI

*Lehiaketako tartak ez dira
irudian agertzen direnak.
Egunean bertan jaso
eta eramango
ditugu Untzagara.



parte-hartzea



Urriaren 24an (ZAPATUA)
12:00etatik 14:30era
Untzagan



Euskara Elkarte



LAGUNTZAILEAK





Jesus Gutierrez

JESUS GUTIERREZ

Ziurgabetasun- printzipioa

Mekanika kuantikoan, Heisenbergen indeterminazio-erlazioak edo ziurgabetasun-printzipioak ezartzen du ezinezkoa dela magnitude fisiko behagarri eta osagarri jakin batzuk zehaztasun arbitrarioz ezagutzea. Laburki dio ezin dela zehaztu, fisika kuantikoan, aldi berean eta zehaztasun arbitrarioarekin, zenbait aldagai fisiko bikote, hala nola, objektu jakin baten posizioa eta momentu lineala (mugimendu-kantitatea).

Norbaitek zerbait ulertu du? Nik behintzat ezer ez. Eta horrela gaude gaur egun, ziurgabetasunez beteak eta koronabirusaren ondorioz gure bizitzako edozein alderdiri buruz ezer ulertu gabe. Azken hamarkadetan, oso deigarria da zein azkar eboluzionatzen eta aldatzen diren gauzak bizitzako arlo askotan (lana, kultura, zaletasunak, ekonomia, hobbyak...). Une batean modan dagoena beste gai batek ordezkatu du, ez antzina bezala, gauza horiek urteetan irauten zutenean. Orain dena da berehalakoa, azkarra, iheskorra....

“Norbaitek zerbait ulertu du? Nik behintzat ezer ez. Eta horrela gaude gaur egun, ziurgabetasunez beteak eta koronabirusaren ondorioz gure bizitzako edozein alderdiri buruz ezer ulertu gabe”

inoiz aldatzen, ez dute ziurgabetasunik, ez baitie ezerk eragiten, eta berdin jarraitzen dute bizitza publikoan eta pribatuan, konfinatu gabe. Corinna Birusa izango da. Zenbat min egiten duten printzesa ilehoriek!

Bada, koronabirusaren etorrerarekin eboluzio azkar hori are handiagoa da orain; gaur balio duena ordu batzuetara guztiz kontrakoa izan baitaiteke, kutsatutakoen kopurua- ren arabera. Aldaketara, egokitzapenera, gerria izatera eta etengabeko bilakaerara ohitu behar dugu.

Eskerrak gauza batzuk ez diren aldatzen, mendeak igaro arren; segurtasuna ematen diguten erreferenteak tradizioei eusten dietelako, errotuta ditugun eta beti alboan ditugun ezaugarriak. Hor daude, adibidez, Borboiak eta beren nortasun-ezaugarri iraunkorrak, belaunaldiz belaunaldi transmititzen direnak, nahiz eta mendeak igaro, hori ez da



Leire Narbaiza

LEIRE NARBAIZA

Zatarra, eta?

Oin urte batzuk, sare sozial baten ezezagun batek, ni iraindu nahixan, zatar deitu zestan. Neri barre egiteko asmotan perfileko erretratu bat hartu, eta burla egin nahi zestan jentia- ren aurrian. Haluzinau egin neban, batez be ezagutu ez, eta txiripaz jakin nebalako. Kontua da, beste argumenturik ez zekanez, fisikua zala geratzen jakon eraso egiteko arma bakarra

Oso zabaldua dago atakatzia itxura kontuengaittik, batez be andrazkuori; izan be, kanpoko plantiagaittik juzgatzen gaittue zorrotz, edertasun estandar konkretu (eta ixa ezinezko) batzuk bete bihar dittugulako zihero onartu gaixez. Azkenian, badi- rudi kanpuak baiño ez dabela inporta. Itxurakerixia.

Eibartarri be behin eta berriro esaten deskue herri zatarra dakagula. Badakigu zer herri dakagun, badittugu begixak-eta. Zatarra dala bota, txiste moduan esan eta? Zer? Zer lortzen dabe horrekin? Sinpatikuak izatia ez, gero! Ez dake beste ezer esateko Eibarren gaiñian, barren! Eta Pragako alde zaharrekuak edo Ti- roleko mendi aldekuak balitzaz, tira. Baiña inguruko jirakuak dira, euren herrixak edar-edarrak balitzaz lez!

“Oso zabaldua dago atakatzia itxura kontuengaittik, batez be andrazkuori”

Ez zagozie kokoteraiño hori entzutziakin? Ez ete da besterik ez dakela esateko gure herrixaren gaiñian, Eibar ezagutzen ez dabelako? Gaiñera, zer ardura detse herrixa zatarra izatiak? Badakixe zergaittik dan halakua? Zelan sufridu daben historixan zihar? Orduan, zer egin bihar dogu zatarrok, hil? Zer egin Eibar zatarra- kin, atzera be bonbardeau barrixa egitteko?

Graziarik ez daka. Originala be ez da. Lagako gaittue inoiz bakian?



Errugbiko gizonen taldeak asteburuan hasiko du denboraldia

>>> Errugbia berriro itzuli-ko da gure herrira Ohorezko B Mailako ligaren hasierarekin, Gaston Ibarbururen mutilek Donostiako Rugby Bera Bera Unben hartuko duten partidua-rekin. Azken denboraldietan klasikoa bihurtu den neurketa hori ez da erraza izango eibartarrentzat, azken urteetan donostiarrak gehiago izan direlako.

Hala ere, gogotsu hasiko dute denboraldia eibartarrek, azken hilabeteetan egindako lanaren fruitua erakusteko asmotan. Bestalde, goi mailako Iberdrola Ligan debutatuko duen emakumezkoen taldeak oraindik aste batzuk ditu lehiaketari aurre egin aurretik, denbora guzti hori taldea ahal den hobekien prestatzeko.



Emakumezkoen taldeko hiru ordezkeri selekzioarekin izan dira.



Euskaltel marka eramango dute Eibar FT-ko emakumezkoek

>>> 2014tik Eibar FT-ren babesle teknologikoa den enpresa emakumezkoen lehen taldearen babesle ofiziala izango da martitzenean Amaia Gorostiza taldearen presidentek eta Xabier Iturbe Euskaltelekoak sinatutako akordioaren arabera; horrela, jokalarien elastikoan agertuko da marka hori. Iturbek enpresaren Berdintasun Planaren garapenean sartu zuen akordioa eta Ipuruan kirol taldearen eta operadorearen artean sinatutako "babesletza-hitzarmenarekin hainbat kirol-eta gizarte-ekintza egingo dira". Bestalde, aipatutako emakumezkoen taldeak denboraldiko lehenengo porrota jaso zuen

Madrid taldearekin Unben jokatutako partiduan, hiriburuaren gol bakarrak erabaki baitzuen norgehiagoka. Jokatutako hiru partidutan eskuratutako lau punturekin, eibartarrek sailkapeneko 9. postuan daude gaur egun. Dorronsoren neskek ez dute partidurik asteburu honetan: hamabost egun barru, azaroaren 1ean, asko indartu den Espanyol bisitatuko dute.

LaLigako gizonen taldeak, bestalde, Sevillan jokatuko du Lopetegiren taldearen aurka, bihar 18:30ean hasiko den partiduan. Mendilibarren taldea 15. postuan dago orain sailkapenean, 5 punturekin.

hamaika BERBALDI



KIKE AMONARRIZ "Berrindartu eta jauzi" euskara biziberritzeko ezinbestekoa

**Urriak 27, asteartea, 18:30ean
Portaleko Areto Nagusian**

Doan

Aforoagatik, aurretik izena eman behar da:
eibarrenakebai@gmail.com / 943 70 84 26
Leku gabe geldituz gero, zuzenean ikusteko aukera izango duzue AKEBAI-ko Facebook kontuan (@EibarrenAkebai)



>>> Orain arte jokaturako partidu guztiak irabazi dituzte Fernando Fernandezek mutilek, hasi Euskadiko Kopakoekin eta 1. Maila Nazionalako ligakoekin jarraitzeko. Azken asteburuan Tolosako Usabal kiroldegian jokaturako partiduan 27-31 irabazi zieten azken urteotan hain aurkari gogorrek izan diren tolosarrei. Hamar gol baino gehiagoko aldea ere izan zuten eibartarrek, azken minutuetan Tolosak markagailua zeozer apaintzea lortu bazuen ere. Mikel Zuloaga izan zen orain ere goletzaille nagusiena sei golekin, baina Hierros Servandoko hamabi jokalarik ikusi zuten atea, aurreko neurketan beza-

Hierros Servandok Barakaldo hartuko du lidergoari eusteko



Defentsako lan bikainarekin batera, jokoan ere aurrera egin dute eibartarrek.

la; eta Ruben Fuentesek beste partidu bikaina egin zuen atepaan. Garaipen horrekin eibartarrek euren multzoko lidergoan jarraitzen dute, jardunaldi honetan ere garaile izan diren Zaragoza Ademarrekoekin berdinduta. Beti Onak talde nafarrak puntu bakarrera jarraitzen diete, galdu ez arren neurketa bat berdindu egin duelako. Hurrengo jardunaldian eibartarrek garaipen bakarrera duten Urban Cabero Barakaldo hartuko dute Ipuruan. Bestalde, aurreko asteburuan jokaturako lagunartekoan, Grupo Mecalbe emakumezkoen senior taldeak 22-21 gol batengatik irabazi zion Bera Berari.

Avia Eibar Saskibaloia porrot mingarria jaso zuen luzapenean Bergara-Soraluzeren aurrean

>>> Gure herriko saskibaloia klubaren talde nagusiak Bergara-Soraluzerekin galdu zuen 68-74 luzapenean, partidua 63na berdinduta amaitu eta gero. Partidu berezia izan zen Ipurua kiroldegian jokaturakoa, Avia Eibarrek kanpotar bezala jokatu zuelako; horrela, bigarren itzulian Bergaran jokatu beharrekoa etxeko moduan jokatu du. Aurkari zaila zuten eibartarrek eta, hala ere,

sendotasuna erakutsi zuten, horrek norgehiagoka parekatua eskaintzeko partidu guztian. Atsedenaldira 29-31 atzetik joan ziren eibartarrek, baina hirugarren zatia amaieran 10 punturen aldeaz galtzen zihoazen. Hala ere, ez zuten amore eman eta 14 segundoren faltan lortu zuten partidua berdintzea. Mikel Lekunberrik prestatzen duen taldeak egingako ahalegina nabaritu



Beste sasoi bateko garaipen bila abiatu dute denboraldia Aviakoek.

zuen luzapenean eta ezin izan zuten partidua bereganatu, baina ondo erakutsi zuen 2. Maila probintzian lehiazteko duen ahalmena; partiduan debutatu

zuen, gainera, Adam Khoukh lehen urteko juniorrak. Bihar 18:30ean, berriro ere Ipuruan, Avia Eibarrek Donostiako DKS taldea hartuko du.



Roglic-ek ondo asmatu zuen noiz aurrera egin Arrateko helmugaren bila.

Roglic-ek irabazi zuen Arraten Espainiako Itzuleraren hasieran

>>> Iazko edizioan Espainiako Itzulia bereganatu zuen Jumbo taldeko esloveniarrak aurrea hartu zien berarekin ia goraino lagun izan zituen Carapaz (Ineos), Dani Martin (Israel), Chaves (Mitchelton), Grobshartner (Bora) eta Enric Mas (Movistar) txirrindulariei. Lehen etapa izan arren, sailkapen nagusiko txirrindularientzako eguna izan zen eta batzuk, Froome (Ineos) eta Vlasov (Astana) kasurako, ia aukera guztiak galdu zituz-

ten. Irundik abiatutako etapa arraroa bihurtu zuen bizi dugun egoerak eta zaletuek antolatzaileen esane jarraitu zieten, aldapetako bazterrak libre utzita. Eibar barruan bai igarri zela giro gehiago, baina hala eta guztiz ere jendeak ondo erantzun zuen, neurriek kasu eginez. Amaieran, betikoari jarraituz, Arrateko azken bihurtunean lehena iristearen pisua nabaritu genuen oraingoan ere eta Primoz Roglic-en eraso era-bakigarria izan zen.



Hilabetea amaitzeko Artzaintza Naturbidearen 10. etapa dute zain Deporreko mendi taldekoek

>>> Urriaren azken egunerako GR 282 bideari jarraituz ibilera horretako hamargarren etapa antolatu dute Klub Deportiboko mendi batzordekoek. Lizarrustin hasiko dute 31ko irteera hori eta, 985 metroko Balankalekutik pasata, Otzaurten amaituko dute txangoa, guztira 19 kilometroko distantzia osatzeko. Betiko moduan, goizeko 07:00etan abiatuko dira Ego Gaineko autobus geltokitik eta itzulera 16:30ean bueltan egitea espero dute. Aurreko zapatuan, hilaren 17an, Artzaintza Naturbidearen 9. etapa osatu zuten, Uharte-Arakiletik Li-

zarrustiraino, tartean Artxue-tatik pasatuta. 38 mendizale elkartu ziren "egun zoragarri batean, paisaia eta naturarekin gozatzeko", diote bertan izandakoek. Ibilbide horretako hurrengo etapa ere hemendik gutxira egingo dute, hurrengo zapatuan (azaroaren 7an) 11. etapari ekingo baitiote: Otzaurte / Mipiribil (1.277 metro) / Arantzazu. Aipatutako txango horietan parte hartu nahi dutenek Deporreko bulegoetatik pasatu daitezke martitzen eta eguenetan (19:30-20:30) edo 943-201904 telefono zenbakira deitu dezakete.



Ezkerretik hasita, Terron, Munkhsukh, Euskadiko beste ordezkaria eta Garcia.

Hiru domina Kalamuakoentzat Espainiako sambo txapelketan

>>> Aurreko asteburuan Murtziako San Javierren jokaturako sambo borroka modalitateko Espainiako txapelketan bertan izandako Kalamua klubeko hiru ordezkariak domina eskuratu zuten. Urte hasieran Euskadiko txapela jantzi ondoren, Euska-

diko selekzioarekin lehiatu zuten Buyannemekh Munkhsukh eta Jonatan Garcia borrokariak zilarrezkoa bereganatu zuten bitartean, Jonatan Terronek brontzezkoa lortu zuen. Euskal selekzioko beste ordezkariak ere brontzezkoa lortu zuen.

Eibar Urkok galdu egin zuen

>>> Ezustekoa hartu zuen foballeko Erregionaleko Ohorezko Mailan jokatzeko duen Eibar Urkok Bergarako Agorrosinen 2-1 galduta. Bere multzoko faborito nagusia da eibartarren taldea eta, Barrasaren gol batekin au-

rrea hartu markagailuan, azkenean amore eman behar izan zuten. Iñigo Perezek zuzentzen duen taldeak aukera izango du Unben lehenengo hiru puntuak eskuratzeko Aretxabaletaren aurkako partiduan.

OHARRA
Banaketa-zerrenda berritzen ari gara. Aldizkaria jasotzeko edo jasotzen jarraitzeko eman izena beheko zerrendan

eta
kitto!
Astebetean

Izen-abizenak

...eta kitto! **astekariko** **ETXERIK ETXEKO BANAKETA-ZERRENDIA** **BERRITZEN DIHARDUGU**

Eibarko etxeetan aldizkaria JASOTZEKO edo JASOTZEN JARRAITZEKO zerrendak bete behar dituzue.

Hurrengo asteetan kale hauetako pegoretan jarriko dira orriak:

**- PLAZA BARRIA - IFAR KALE - BISTA EDER
TXIRIO KALE - MIGUEL AGINAGA - TXALTXA ZELAI
ARMAGIN - MUTIOLA - EULOGIO GARATE - ELGETA KALE
- EIBARKO BIZIKLETA PLAZA**

banaketa.etakitto@gmail.com

<<< JUAN PALACIOS • Zinemagilea >>>

“Zinema tresna egokia da mesetako paisaiaren puntu sentsoriala azaleratzeko”

Gaur estreinatuko da ‘Meseta’ zinema aretoetan, Juan Palaciosen azken lana. Zinemagile eibartarrak Espainia hutsaren kontakizun poetikoa egin du bere aittitta eta amamaren herritik abiatuta. Herbeheretan, Amsterdamen, bizi den Palacios Coliseoan izango dugu bihar, 17:00etan, pelikula aurkezteko.

‘Meseta’ zinema aretoetara iritsiko da gaur eta Coliseoan aurkeztuko duzu bihar. Gogotsu?


Bai, eta baita urduri ere. Egiten dituzun gauzak herrikideei erakustea ez da egunero egiten. Lagunei eta gertukoei pelikula erakutsi nahi diet eta, gainera, baldintza egokietan, zinema areto batean. ‘Meseta’ zineman ikusteko pelikula da, paisaiak pisu handia duelako.

Pelikula jaialdietan egon da eta sariak jaso ditu. Nolako ibilbidea egin du aretoetara iritsi aurretik?

Estreinaldia Danimarkan, Kopenhageko CPH:DOX zinemaldian egin zen, nire iritziz ez-fikziozko pelikulen munduko zinemaldirik onenean. Aurkezpena hor egitea bakarrik saria zen niretzat eta saria jaso genuen gainera. Euskal Herritik edo Espainiatik kanpokoentzat pelikulan agertzen diren gauza batzuk ulertzea zaila izan daiteke (umorea, adibidez), ez dutelako testuingurua ezagutzen, baina oso ondo konektatu dute pelikularekin. Zerbait exotikoa bezala ikusi dezakete agian.

Nola erein zen pelikularen hazia zure buruan?

Pelikula amama eta aittittaren herrian hasten da, Zamorako probintzian. Neguan 60 biztanle inguru ditu eta egun batean herriko gazteenak 16 urte zituela konturatu nintzen. Hau



da, 16 urtean inor ez zen jaio herri horretan! Horren inguruan pentsatzen hasi nintzen eta ikusi nuen Espainia barnealdeko herri askotan antzeko egoera bizi zela. Herri askotan ez dago umerik eta batzuetan ez da inor ere bizi. Literaturan fenomeno horri 'Espainia hutsa' deitzen hasi zitzaien eta orduan ajabatu nintzen horren atzean aipagarria den historia dagoela. Orain, pandemiarekin jendea konturatu da hirietako bizi-modua ez dela oso osasuntsua. Pandemiak bizitza-erritmoa gelditu du eta benetan garrantzitsuak diren gauzetan pentsatzen hasi gara. Jendea ogia, konbutxa, jogurta... egiten hasi da eta baserri-munduak horretarako aukera ematen du.

Kasu batzuetan kaletarrek idealizatu egiten dute landa-mundua. Nolako errealitatea erakusten du pelikulak?

Landa-guneetako bizitza ez idealizatzea edo erromantizatzea zen nire asmoa, baina zaila da. Ni kaletarra naiz eta kostatu zait kaletar baten ikuspuntua lagatzea, begia gauza xelebreetan fijaszen delako. Landa-guneak birpopulatzeko moduak bilatzen dihardute eta erromantizazio horrek ez



du mesederik egiten, bertan bizitzerakoan konturatzen zarelako gauzak ez direla aurretik imajinatu bezalakoak.

Pelikula dokumentala izanik, ez dago aktorerik, pertsonaiek ez dute paperik egiten. Nola moldatu zara eurekin?

Kasu batzuetan erraza izan da, aittitta eta amama direlako protagonista bi. Bestetik, landu nahi nuen gaiaren arabera pertsona-mota bat edo beste behar nuen, eta bila ibili nintzen. Herriko artzaina, adibidez, pixka bat ezagutzen nuen, beti izan delako hango paisaiaren elementu bat. Gero, herri

batean bizi den ume bakarrarekin egon nahi nuen eta, amama eta aittittaren herrian umerik ez dagoenez, beste batean aurkitu nuen. Horrela, proiektua zabaltzen joan da eta horregatik deitu diot 'Meseta', lurralde zabala hartzen duelako.

Irudiak eta soinuak demaseko indarra dute. Bereziki zaindu duzun arloa da?

Txikitatik liluratu nau mesetako lautadak. Oso zinematikoa iruditu zait beti, baina ez da oso pintoreskoa. Ez da grabatzeko erraza, basamortu itxura hori oso zakarra da. Paisaia misteriotsua da eta zinema tresna

egokia da mesetako paisaiaren puntu sentsoriala azaleratzeko. Beraz, hasieratik nekien argazkia eta soinua ondo zaindu behar nituela.

'Pedalo' abentura zoroa izan zen; 'Meseta', ordea, kontentplaziozkoa eta hausnartzekoa. Zure heldutasunaren erakusle da hori?

'Pedalo' egitea zinema eskolara joatea bezala izan zen. Lehenik Ingurugiro Zientziak ikasi nituen eta gero Ikus-entzuzko Komunikazioa, baina zinema ez. 'Pedalo'-rekin ikasi nuen grabatzen, montatzen... ia dena neure gain hartu nuelako. Askotan ahal duzun zinema egiten duzu, ez nahi duzuna. 'Meseta' ez dakit heldutasun erakusle den, baina esperientzia bai nabari da. 'Meseta' bai da egin nahi dudana zinema.

Atzerrian bizi zara, baina 'Pedalo' eta 'Meseta' hemen inguruan daude kokatuta. Zure jaioterriarekin lotura estua izatea lortzen duzu zinemaren bitartez?

Batzuetan pentsatu izan dut agian guzti hau etxera itzultzeko aitzakia dela, maite dudana jendearekin egoteko. Eta baliteke horrela izatea! (barreak).

zarelakogara

Izen-abizenak _____ Helbidea _____
Tfnoa / emaila _____ NAN _____
Jaiotze data _____ K/K zenbakia _____

Bazkidetza edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuek	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

...eta kitto!
Euskara Elkarte

Urkizu 11
943 20 09 18 - 943 20 67 76
elkartea@etakitto.eus

* Urteko kopariak dira



Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Udazken honetan Euskaraldiaren bigarren edizioa egingo da eta antolatzaileek ariketan parte hartzeko gonbidapena egin nahi diote jende guztiari: "Azaroaren 20tik abenduaren 4ra hizkuntza-ohiturak astintzera goaz, euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko". Parte hartzeko baldintzak aurreko edizioko ber-

dinak dira: 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena, bakoitzak bete nahi duen rola aukeratu eta txapa jantzita ariketa egin ahal izateko. Horretarako hiru modu daude: euskaraldia. eus webgunean; herrietako batzordeek jarriko dituzten informazio gunee eta mahaietan; eta jadanik eskuragarri dagoen telefono aplikazioan.



Amagandik Edoskitzearen Argazki Lehiaketa antolatu du Debabarreneko ESI-k

Debabarreneko ESIk (Era-kunde Sanitario Integratuak) Amagandik Edoskitzearen V. Argazki Lehiaketa antolatu du. Edozeinek har dezake parte, amagandik edoskitzearekin zerikusia duten irudiekin. Argazkiak originalak eta berriak izango dira eta parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkez-

ditzake, koloretan edo zuri-bel-tzean. Lanak BPSO.OSIDE-BABARRENA@osakidetza.eus helbidera bidali behar dira eta horretarako epea azaroaren 16ra artekoa da. Lehiaketaren oinarriak eta bestelako informazioa erakundeko web orrian dago eskuragarri, baita Facebook-en ere.



Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa

Udalaren babesarekin Eibarko Artisten Elkarteak antolatuta, domekan XLIII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa egingo da. Izen-ematea Museoa egin beharko da, domekan bertan, 09:00etatik 11:00etara. Lanak, berriz, 13:30erako aurkeztu behar dira, udaletxean. Kanpoaldean jarriko dira, pintore bakoitzaren astoen gainean, eta publikoarentzat ikusgai egongo dira. Epaimahaiak 14:30ean emango du bere erabakiaren berri. Honako sariak banatuko dituzte: helduen mailan, Eibarko Hiriaren Sari berezia (800 euro eta garaikurra), 2. saria (500 euro), 3. saria (400 euro) eta 4. saria (300 euro); 18 urtera artekoen mailan, 1. saria (90 euro) eta 2. saria (60 euro); eta 12 urtera artekoen mailan, 1. saria (50 euro) eta 2. saria (30 euro).

Kike Amonarrizen hitzaldia

Martitzenean, 18:30ean, Kike Amonarrizek hitzaldia emango du Portaleko areto nagusian. Eibarren AKEBAIren Hamaika berbaldi egitasmoaren baitan eskainiko duen saioan Topalabe taldeak uda aurretik argitaratu zuen "Berrindartu eta jauzi" gogoetari buruz arituko da Amonarriz, baita COVID-19ak euskeraren biziberritze-prozesuan izan duen eraginaz ere. Ekitaldia herritar guztientzat zabalik egongo da, baina aforoagatik derrigorrezkoa da aurrez izena ematea. Interesa duenak eibarrenakebai@gmail.com helbidera idatzi edo 943 70 84 26 telefono zenbakira deitu beharko du.



Musika Bandaren kontzertua

Eibarko Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12:30ean Coliseoan, Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta. "Cielo andaluz" (Pascual Marquina), "La del manjo de rosas" (Pablo Sorozabal), "Gigantes y cabezudos" (Manuel Fernandez Caballero), "Man of La Mancha" (Mitch Leigh) eta "The Mask of Zorro" (James Horner) joko dituzte.



Harriak udazken gorrian. GORKA TELLERIA

		4	6			5	
			9		7		1
			5	2			7
						1	5
	3	2				7	8
1		6					
	7			6	4		
	2		1		5		
	6				2	9	

			8	3			5	
					9		7	
1	9				2			
3	2						8	
8	7	9				3	5	4
	5						7	9
			6				4	8
9			1					
2				4	3			

soluzioa

8	9	0	2	2	2	0	1	9	0
2	0	0	0	0	1	0	2	7	
1	2	0	9	0	0	0	0	0	0
7	0	0	0	0	0	0	0	1	
9	0	0	1	0	7	2	0	0	
0	0	1	0	0	2	0	0	0	
6	2	7	0	2	0	0	1	0	
0	1	9	0	7	0	9	0	2	
2	0	0	0	0	1	0	0	0	

SUDOKUAK

soluzioa

0	1	0	0	7	0	0	0	0	0
2	0	0	0	0	1	0	7	0	
0	9	0	0	0	0	0	1	0	
0	0	0	0	0	0	0	0	1	
7	0	0	0	1	0	0	0	0	
9	0	0	0	1	0	0	0	0	
0	0	0	0	0	0	0	0	0	
0	0	0	0	0	0	0	0	0	
0	0	0	0	0	0	0	0	0	

PASARTEA OSATU

Joko honetan zenbakiak hartu dute letra edo hizkien ordea. Letra bat, zeinek berea, hartzen du gehienez zenbaki bakoitzak, eta batzuetan ez dira letra guztiak azaltzen. Zenbaki batzuei dagozkien letrak eman ditugu, lauki guztiak egoki bete ondoan "Martutene" liburuko pasartea osatzeko.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
		E			Z			N	

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
R				T			U		

10	8	9	2	1	20	16	14	6	20	8		7	3	11	3
6	20	11	20	16		4	14	7	3	16	8		5	3	19
18	14		3	4	20	15	3	9		6	18	3	9		7
14	15	3	9		7	14	15	3	14	9		4	3	11	15
14	15	18		20	6	14	9		6	3	9		4	20	6
8	9		4	14	6	15	3	14	16		1	8		12	14
11	15	6	3	14		3	15	14		7	3	11	14	16	
20	1	18	9	2	3	14	9		17	14	9	15	6	20	
3	15	14		20	11	14	15	6	14	11	11	20		4	14
7	3		14	1	13	3		3	4	20	15	3	14		

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Farmaziak

BARIXAKUA 23

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

ZAPATUA 24

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

DOMEKA 25

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

ASTELEHENA 26

EGUNEZ | Lafuente (Sostoatarren, 10)

MARTITZENA 27

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

EGUAZTENA 28

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

EGUENA 29

EGUNEZ | Mendiñeta (Urkizu, 6)

BARIXAKUA 30

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2020an,

Barandela (Ziriako Agirre, 4)

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Pakita Orbegozo Izagirre.** 100 urte. 2020-10-14.
- **Manuel Garcia Andres.** 51 urte. 2020-10-15.
- **M^a Teresa Gantxegi Juaristi.** 97 urte. 2020-10-15.
- **Iñaki Agirre Errazkin.** 63 urte. 2020-10-17.
- **Andres Moreno Collado.** 80 urte. 2020-10-17.
- **Anisio Crespo.** 63 urte. 2020-10-17.
- **Bittori Zabala Arruabarrena.** 89 urte. 2020-10-20.

Jaiotakoak

- **Luna Tiemblo Fonseca.** 2020-10-6.
- **Adora Eseosasere Imanfidon.** 2020-10-9.
- **Jule Ziarsolo Oiarbide.** 2020-10-13.
- **Naia Mekolalde Chavez.** 2020-10-14.
- **Izan Cid Muñoz.** 2020-10-18.

ORDU ALDAKETA

Asteburuko zapatutik domekarako (urriak 25) goizaldeko 03.00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02.00etara. Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburu horretako domekak. Neguko ordutegiak martxoaren 28ra arte iraungo du, udakoa berriro indarrean jarri arte.



ek!

**ESKELAK,
URTEURRENAK
ESKERTZAK...
jartzeko:**

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



M^a ANGELES ARRIETA MURGOITIO

(2013-X-25)

Zazpi urte badira ere gure aldetik joan zarela...

EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO

IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA.

Jose Miguel eta Jalone Gorospe, zure senarra eta zure alaba

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **LAIA** Azkuenaga, hillaren 27xan 9 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez. Ondo pasa!



Zorionak, **MANEX**, mutil haundi!! Hillaren 21ian 6 urte beteko dozuz-eta!! Patxo potoluak famelixa guztiaren partez, bereziki Paul eta Beraren partez.



Zorionak, **OINATZ**, astelehenian 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat Bernat, Lur eta Naiken partez.



Zorionak, **MIREN**, hillaren 19xan 4 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **IAN!** Bixar, zapatua, 6 urte beteko dozuz-eta. Egun on-ona pasa, eta musu haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **IGOR**, hurrengo martitzenian 7 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **KEPA**, bixar 11 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztiaren partez.



Zorionak, **LEIRE**, bixar 9 urte beteko dozuzelako, eta **JULEN**, eguenian 5 egingo dozuz-eta. Zorionak famelixaren eta, batez be, Naia eta lehengusuen partez.

ek!

Euskara Elkartearen astekaria

943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **24an:** 16:00 (antzokia), 19:45, 22:30
- **25ean:** 17,00 (antzokia), 20:00
- **26an:** 20:30

“Trolls 2. Gira mundial”

Zuzendaria: Walt Dohm



2 ARETOA

- **24an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **25ean:** 16,00, 20:00
- **26an:** 20:30

“El club de los divorciados”

Zuzendaria: Michael Young



ANTZOKIA

- **24an:** 17:00 (1 aretoa), 22:30
- **25ean:** 16:00 (1 aretoa), 20:00
- **26an:** 20:30

“Ane”

Zuzendaria: David Sañudo



ANTZOKIA

- **24an:** 19:00

“Meseta”

Zuzendaria: Juan Palacios



Iragarki laburrak


688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu berria salgai Urkizun. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. Ikusteko arazorik ez. Tel. 666927559.

1.2. Errentan

- Neska euskaldunak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 646369330.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztuta. Bikoteentzako aproposa. Kanpora begira eta argitsua. Tel. 637587823.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Martxan dagoen ileapaindegia salgai, jubilazioa dela-eta. Tel. 943120218.
- Neska euskaldunak garaje itxia edo marra bat hartuko luke, trasteroarekin, Eibarko erdialdean. Tel. 646369330.
- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakume eibartarra eta euskalduna eskaintzen da menpekotasun egoeran daudenei edozein lanetan laguntzeko. Urte askotako esperientzia. Tituluduna. Tel. 667376212.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (euren etxeetan artatzeko tituluarekin) eta garbiketarako egiteko. Urtetako esperientzia. Tel. 617610706. Isabel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631398396.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 643278344.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldean umeak zaintzeko. Tel. 650257850.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko: asteburuetan interna eta astegunetan orduka. Esperientzia eta zainketarako tituluarekin. Tel. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 658398474.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko edo mendian lan egiteko. Tel. 662415709.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 602407338.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetan.

rako. Menpekoei laguntza sozio-sanitarioa eskaintzeko tituluarekin. Tel. 631908193.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa. Tel. 635189294.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltseritza, garbiketara edo basogintza lanak egiteko. Tel. 602188264.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Tel. 617571210.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Kurtsoa eginda eta hiru urteko esperientziarekin. Tel. 631627419.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 612221327.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta gaixoak zaintzeko. Tel. 657155078.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Urtetako esperientzia. Tel. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 612525893.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- LH3 mailako ikasgaiak ematen dituen irakasle partikularra behar dugu. Tel. 648643715.

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko laguntza-klaseak ematen ditut. 1-3 lagunekin taldeak. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab. eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai


- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688634326.

6.3. Galdu / Aurkitu

- Smart-Band erloju urdina aurkitu genuen J. Etxeberria kalean hilaren 16an. Deitu. Tel. 656704387.
- Belarritakoak topatu nituen hilaren Sean Aldatzeko haur eskolaren parrean. Tel. 672428273.

6.4. Bestelakoak

- DBH3ko liburuak erosiko nituzke. Tel. 637587811. Amaia.


688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

instalakuntzak eta konponketak
antena

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 oc
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azaitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK



TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922 www.thelecer.com

ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-el.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, hirigintza eta periferiak
erakin eta obrak ludeakela teknika

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12

www.arquitectura-el.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.

ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK



ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@itefotina.com 943 80 1880
AJT Zihortasuna S.L.
Berrona, 6 - behea esk.

KRISTALAK



TALLEREA: ERREKATXU, 3^{er}

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

eta faxa: 943 203 903

ERAKUSKETA
Arkiturako Zubian

**USOBIAGA-OTERMIN
ARKITEKTOAK**

Untzaga Plaza 11 Eibar
tel. 943200318

info@usoarkitektoak.com
www.usoarkitektoak.com

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

ROSARIO, 15 - ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

PINTURAK

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21
Tel 943 201 922

www.bagliettoeibar.com
bagliettoeibar@kaixo.com

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 87 www.ulmar.net

ERAKUSKETA

EIBARRER, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

GARBIKETAK

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superficie
mota guztiak
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 631 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com



Arragueta, 18-2.D

www.kolorlan.com 667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.



Mekola
S.COOP.

EIBAR

**LASTER
ERAIKIKO DIRA**

**AUKERA
EZIN
HOBEA**



**KOKALEKU
EZIN HOBEAN,
EIBARKO BISTA
ONENEKIN**

**Bat, bi eta hiru
logelako etxebizitzak
kooperatiban.**

KUDEAKETA:

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

FINANTZAKETA:



Larragest
AGENCIA INMOBILIARIA

banko^{CA}
Groupe
Crédit Agricole

943 20 00 12 / 660 976 156

www.mekola.eus